

The Social Tech Times



Gatazkarik Gabeko Teknologia lortzearen alde



www.gatazkarikgabekoteknologia.org

004. Zb.

Lotura dago zure telefono mugikorraren eta Kongoko emakumeen aurkako indarkeriaren artean

EMAKUMEEN AURKAKO SEXU-INDARKERIA IZUA ZABALTZEKO ERABILTZEN DEN GERRAKO ARMA DA



Emakumeek gero eta gordintasun handiagoz bizi dute Kongoko ekialdeko drama humanitarioa.

Azaroaren 25ean **Emakumeenganako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izango da**. Data zehatz horretan ospatzeko proposamena Dominikar Errepublikak egin zuen, 80 herrialderen babesarekin. Emakumeen aurkako indarkeriak belaunaldi guztietako familia eta erkidegoei eragiten die, eta ez dagokio kultura, eskualde edo herrialde zehatz bati. Indarkeria mota hori emakumeenganako diskriminazioarekin lotuta dago, eta elkarren artean lotutako adierazpide desberdinak ditu: fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa. Emakume guztien % 70ek gutxi gorabehera jasaten du indarkeria bizitzan zehar.

Kongoko Errepublika Demokratikoa oso kasu paradigmatikoa da. Zaila da herrialde horretako emakumeek jasaten duten drama humanitarioa baino lagarriagorik aurkitzea.

Kongo munduko meatzalde nagusienetako bat da. Teknologia berriak, batez ere telefonia mugikorra, gartzeko ezinbestekoak izan diren mi-

neral gehienak herrialde horretan daude. Gure telefono mugikor, tablet eta ordenagailuen barruan daude mineral hauek: urrea, eztainua, tantalioa eta wolframioa.

Mineralen erauzketa, prozesatua eta salmenta talde armatuen eskutik dago. Mineralen ustiapenetik eta legez kanpoko salerosketatik eskuratzen duten dirua arma gehiago erosteko erabiltzen dute, eta, horrela, **bigarren Mundu Gerratik izan den gatazka odoltsuena luzatzen jarraitzen dute**.

Gerra horren ondorioei esker, Kongo infernu bat da: bost milioi hildako baino gehiago 1998. urtetik eta milioi bat pertsona desplazatuta 2013. urtean.

Emakumeak ikusgai ez izatea eta beren sufrimendua

Indarkeria handiena emakumeek jasaten dute. Emakumea bazara, Kongo da bizitzeko lekurik txarrena. Herrialde horrek ditu munduko sexu-indarkeriaren tasarik altuenak:

DATUA

► ALBOAN elkarteak 'Mujeres desplazadas' izenburuko bideo bat editatu du, emakume horien egoera azaltzeko. <http://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/emakumeak/>



dira. Emakume askok prostituzioan aritu behar izaten dute, eta beste batzuek zamaketari gisa, meategietan. Ez dute lan-segurtasunik, ezta mediku arretarik ere, eta ia-ia esklaboak bezala lan egiten dute bizirik irauteko.

Emakumeen bazterkeria hezkuntza arlora ere iristen da

Familia desplazatu askok beren ondasunak saltzen dituzte mutilak eskolaratzeko; neskak, ordea, etxean geratzen dira. Desplazamenduaren ondorioz neska gazte askok ez dute inoiz eskolara joateko aukerarik izan. Etxeko lanetan aritzen dira edo, bestela, haurdun geratzen dira oso-oso gazteak direnean, eta ezkontzera eta senarraren mendea bizitzera behartzen dituzte.

Gatazkarik gabeko teknologia

«Gatazkarik gabeko teknologia» kanpaina ALBOAN GKEaren proposamena da, eta helburua du teknologiaren eta Kongoko ekialdeko indarkeriaren arteko loturak apurtzea, batez ere, emakumeek jasaten duten indarkeriarekiko lotura.

ALBOAN GKEak ohartarazi nahi du Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdeko emakumeek bizi duten egoerari buruz, indarkeria sortzen laguntzen duten arazoak desagerrarazteko asmoz. **Horretarako, Europako lege baten bidez, gatazkarik gabeko teknologiaren eskera sortu behar dugu; lege horrek mineralen legez kanpoko kontrabandoaren negozioa amaituko luke, eta odolez zikindutako produktu teknologikoak gure eskuetara heldzea eragotziko luke.**

Horrez gain, presazkoa da laguntza ematea Kongoko gerraren ondorioz desplazatutako ahalik eta pertsona gehienei, bereziki indarkeriaren biktima diren emakumeen.

Produktu teknologikoen kontsumitzaileak garen aldetik, emakumeen aurkako indarkeria elikatzen duen katearen katebegiak gara denok, eta, horregatik, katea apurtzen lagundu ahal dugu. Ez da erokeria hau gelditzeko ordua? Denon artean, Kongon indarkeriari amaiera ematen lagundu dezakegu. Orain zure txanda da. ■

urtean ehun mila emakume baino gehiago bortxatzen dituzte. Emakumeen aurkako sexu-indarkeria izua zabaltzeko eta jendea herrietatik kanporatzeko erabiltzen den gerrako arma da; horrela lortzen dute talde armatuek meategiak dauden lurraldeak kontrolatzea.

Emakumeek bortxaketaren eta desplazamenduaren trauma psikologikoak bizitza osoan jasaten dituzte. Askotan, bortxaketan ondorioz haurdun geratzen dira, edo sexu-transmisiozko gaixotasunen bat, ihesa, esaterako, kutsatzen diete. Eta hori gutxi balitz bezala, bortxatutako emakumeak baztertzat dituzte beren senarrek, familiarek eta inguruneak. Sarritan komunitatetik ihes egin behar izaten dute, eta beren nahigabea bakarka eta isiltasunean bizitzera behartuta daude, estigmatizatuta ez geratzeko.

Desplazatuaren eremueta janari eskasia dago eta seme-alabak elikatzeko beharra dela eta, mota guztietako abusuen biktima bihurtzen

Aurrerapauso bat iNo #conflictminerals!

GATAZKAKO MINERALEI BURUZKO EUROPAKO ARAUDIA

22.000 pertsonaren sinadurak bildu ditugu, eta, horri esker, EBk aurrerapausoak ematea lortu dugu. #conflictminerals-en merkataritzan enpresek duten erantzukizunak eskatzeko.

2016ko ekainean lortutako hitzarmenean, EBko agintariek ontzat jo zuten gatazkako mineralen buruz egingo den Europako legeak bete behar bi hauek ezartzea mineralen (tantalioa, wolframioa, eztainua edo urrea) inportatzailerak: batetik, hornidura-politika arduratsua ezartzea, eta, bestetik, erabiltzen dituzten mineralen jatorriari buruzko

DATUA

► Gure manifestuarekin atxikimendua adierazi, gure ahotsa entzun dadin:
<http://www.tecnologiaibredeconflicto.org/eu/firma/>



informazioa ematea publikoari. Hori berri pozgarria da eta bide onetik doa. Dena den, ez da nahikoa. Izan ere, hitzarmenak ezarritakoaren arabera, mineral horiek produktu amaituetan (telefono mugikorrak, ordenagailuak, tabletak...) sartzen dituztenak ez daude gardentasunez jokatzera behartuta; aitzitik, nahi badute bakarrik egingo dituzte aipatutako bi bete behar horiek.

Mugarri garrantzitsua dugu hau, baina ez da amaiera. Legea 2016ko abenduan onetsiko da, eta ordura arte borrokan jarraituko dugu #conflictminerals-en kontrolari buruzko lege eraginkor bat lortzeko. **Zure atxikipena behar dugu Europar Batasunari «neurri osagarriak» onartzea eskatzeko**, beste hitz batzuekin esanda, arazoak kalteetako agenteek Kongoko giza eskubideen urraketari amaiera ematen ahalbidetzeko laguntza: trazabilitate-egiaztagiriak enprestan, hezkuntza herritarrentzat, legezko kooperatibak meatzarientzat...■



Caddy Adzuba Kongoko aktibista, ALBOAN elkartera egin zuen bisitan.

IKUSI ZER LOTURA DAGOEN ZURE MUGIKORAREN ETA KONGOKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERAREN ARTEAN



ZEURE MUGIKORRAK EZKUTATZEN DUENA

www.gatazkarikgabekoteknologia.org

Amparo Sánchez /KANTARIA

«Espero nuen egoera latza aurkitu nuen, baina espero ez nituen irribarreak, kantak eta bizipoza aurkitu nituen»

Aurtengo uztailean, Amparo Sánchez kantari, musikagile, idazle, ekoizle eta Amparanoia taldeko sortzailea, Bartzelonako bere etxea utzi eta Kongoko Errepublika Demokratikoko Goma hirira (Laku Handiak) abiatu zen, Afrikako krudelkeriaren bihotzera. Amparoren asmoa Ipar Kivu probintzia koloretsu eta kaotikoan murgiltzea zen, gaur egungo drama handienetako bati aurre egiteko: emakumeen aurkako sexu-indarkeria sistematikoa eta orokortua, 20 urte baino gehiagoko gatazka armatuaren testuinguruan.

Bizi-erperientzia hunkigarri eta nahasgarri horren emaitza *Mama África* abestia da: bidaian Amparok ezagutu zituen emakumeen mina, eta, batez ere, ausardia eta itzaropena islatzen dituen abestia. Emakume biktimak, emakume borrokalariak.

► **Zerk bultzatu zaitu ALBOAN elkarrean?** Gatazkarik gabeko teknologia» **kampainan parte hartzera eta lankidetzara hori *Mama África* abestian islatzera?**

Abestiak zerbait konpartitu edo

adierazi beharragatik sortzen dira. Nire ustez, Kongoko emakumeen errealitate latza kontatu beharra dago. Eta hortik sortu zen ALBOAN elkarrekin eta bere kanpainarekin batera aritzeko elkarlana.

► **Zer aurkitu zuen han?**

Jakin banekien Kongoko bidaia esperientzia ahaztezina izango zela, baina uste baino gehiago izan zen. Espero nuen errealitate latza aurkitu nuen, baina espero ez nituen irribarreak, kantak eta bizipoza aurkitu nituen.

Emakume batzuek beren istorioa, beldur eta sufrimenduz beterikoa, kontatu zidaten, eta haiekin egotea zirraragarria izan zen. Emakume horiek lur jota daude, moraliki eta fisikoki, ez dakite beren seme-alabak non dauden eta ez daukate nora joan. Batzuek dardarka hitz egiten dute, betiko kolpatuta, eta begirada mantentzeko ere ez ziren gai, baina, aldi berean, emakume indartsuak dira.

► **Nondik ateratzen dute indarra?**

Kongo emakumeak indarra eta alaitasuna dira. Harrigarriak dira haien

Caddy Adzuba / ABOKATUA, KAZETARIA ETA EMAKUME ETA UMEEN GIZA ESKUBIDEEN ETA PRENTSA ASKATASUNAREN ALDEKO AKTIBISTA

«Europak hausnartu behar du ea zilegi den bere garapena munduko beste leku batzuetako zoritxarreen eta espolioazioan oinarrituta egotea»

Elkartasunaren Asturiasko Printzea saria jaso zuen 2014. urtean. Kongoko emakume honek Kongoko Errepublikako Demokratikoa 1996tik dagoen (su-eten laburrak tartean) gatazka armatua bizi izan du.

► Zein dira Kongoko Errepublika Demokratikoko gatazkaren arrazoiak?

Ezin dugu esan Kongon gatazka azaltzeko arrazoi bakar bat dagoenik. Alde batetik, ordena politikoari lotutako **barne-arrazoiak** daude, herritarren onerako lan egiten ez duen eta babes bilatzeko talde armatuak sortu dituen gobernu bati lotutakoak. Baina gatazka gehien elikatzen dutenak, zalan-zalarik gabe, **kanpoko arrazoiak** dira: **gatazkaren sorburuan dauden mineralak**. Mineralen ustiapena eta nazioarteko interes ekonomikoak.

► Agertoki horretan, zergatik dira emakumeak gerrako arma?

Kongoko gerran, aurrera eramango zituzten estrategiak prestatzean, konturatu ziren emakumei eraso egiteak gerra irabazten lagunduko zuela. Kongon, emakumea komunitatearen bizitzaren erdigunean dago, ekonomia informala haren eskuetan dagoelako. Emakume baten mendeetan 20 pertsona egon daitezke, eta familia oso handien baliabideak emakume

bakar baten eskuetan daude. Horregatik erabiltzen dituzte emakumeak gerrako arma gisa: emakumea torturatzaren badute, ezin izango da sorora joan, ezin izango du lan egin, eta bere familia osoa egongo da arriskuan. Horixe da gerraren logika: 40 bala erabili beharrean, tiro bakar batek bizitza asko suntsitu ahal ditu.

► Europako gizarte zibil gisa, zein izan beharko litzateke gure eginkizuna? Zer erantzukizun daukagu Kongoko Errepublika Demokratikoan?

Jendeak bere buruari galdetu beharko lioke zeren mendeetan dagoen Europa-ren garapena, mendealdearen Europa-ren garapena, mendebaldearen Europa-ren garapena, baie eta noizbehinka egiturazko krisiak eta gatazka txikiak egon, sufritzen ari diren beste gizarte batzuen egonkortasun, ekonomia eta garapenaren kontura lortzen dira. Herrialde horiei zorra itzultzeko garaia dela uste dut. Europak gatazkan murgilduta dauden herrialde horietatik ateratzen baititu baliabideak.

ALBOAN elkarteak eta beste elkarte batzuek hezkuntza eskaini behar diete herritarrei, Europako gizar-

DATUA

► Esteka honetan Caddy Adzubari egindako elkarrizketaren bideoa daukazu: <http://www.tecnologiabilibredeconflicto.org/eur/firma/>



teari argi utzi behar diete telefono mugikorrak dituztela beste leku batzuetan koltana dagoelako.

► Nolako etorkizuna nahi duzu Kongoko Errepublika Demokratikoan?

Asko dago egiteko. Nazioarteko komunitatearen lana eta laguntza behar dugu, eta ALBOAN elkarteak guri ahotsa eman eta gure egoera ezagutarazteko egiten duen lana ere beharrezkoa dugu. Kongoko herrialdearen garapena nahi dugu, eta horretarako, gure herrialdetik bertatik eta nazioartetik mailatik lan egin behar da. Kongoko Errepublika Demokratikoak munduko zorpu aberasenetako bat dauka, baina bertako herritarrek ez daukate bizimodu duin baterako behar beste. Egoera hori aldatu nahi badugu, beharrezkoa da Mendebaldeak kontzientzia hartzea eta erantzukizuna bere gain hartzea. ■



Amparo, bidaiko momentu baten abesten...

DATUA

► Amparo Sanchezen abestiaren bideoak eta bidaiaren bideoak esteka honetan ikusi ditzakezu: www.tecnologiabilibredeconflicto.org/amparosanchez

irribarreak, afektua, maitasuna, besarkadak, begiradak, bai eta komunikatzeko egiten duten ahalegina ere. Haien oinazea hain handia izan dezenez eta heriotza hain hurbil ikusi du-

tenez, benetan beste aukera bat du tala ikusten dute. Hortik datoz haien indarra eta alaitasuna.

► Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeekin eta haien egoerarekin duzun lotura Justine Masika-ri esker gertatu da. Justine Masika Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles (SFVS) elkartearen burua da.

Bai, hala da. Justine Donostian ezaugtu nuen, aurtengo martxoan, eta lehenengo unetik gure artean lotura eta konplizitate oso handia egon zen. Justine oso emakume gogorra da, ez du inoiz irribarre galtzen. Egoera la-

tzenetan ere baikotasunari eta itxaropenari eusten dio. Gainera, Justinek emakume talde handi baten babesa du: sexu-indarkeriaren biktimen diren emakumei arreta, maitasuna, laguntza psikologikoa, laguntza juridikoa eta abar eskaintzen dien emakume taldea. Nik neuk, Justine eta bere kideak super emakume gisa ikusten ditut, emakume boteretsuak gisa.

► SFVSren lanean oinarritzako da emakume horiei harrera egiteko Bulengo etxea

Bai, Bulengo etxea da inoiz ikusi dudana emakumeentzako harrera-erretxerik onena. Jakina, bortxaketek larri zauritu dituzte, betiko, baina etorkizunaren aurrean duten etsipena transmititu zidaten niri gehienbat. Aldi berean, itxaropen izpi bat ikusten dute, haien esperientzia bera bizi eta aurrera egin duten beste emakume batzuekin daudelako. Ildo horretatik, Bulengo etxearen lana funtsezkoa da emakumei hasiera-hasieratik maitasuna eta babesa emateko, bai eta bigarren fasea pasatzeko beharrezko tresnak emateko ere.

Asko gustatu zitzaidan egiten duten alfabetatze-lana, nola prestatzen dituzten gazteak eta nola erakusten dieten hezkuntza behar-beharrezkoa dutela, prestakuntza horrek indartzen baititu, kontuan hartuta emakume horiek oso egoera ahulean daudela. Ikasketak edukitzeak gaurk argi ikusten laguntzen die. ■



Gatazkari buruzko filmaketak egin dituzte.

La Sextako Jordi Évolek eta Salvados saioak ere Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeen aurkako sexu-indarkeria ikusarazten dute

LA SEXTAKO SALVADOS SAIOKOAK BULENGO HARRERA ETXEAN IZAN DIRA

La Sextako Salvados saioaren ekipoa bat, Jordi Évole burua zela, Kongoko Errepublika Demokratikora joan zen, herrialde horretako ekialdean, zehazki, Ipar Kivu probintzian emakumeen aurka egiten den sexu-indarkeria sistematikoa eta orokortuaren berri izateko.

Saioa ALBOAN elkarteak babesitutako Bulengo harrera-etxean grabatu zen; etxe horretan, Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles (SFVS) elkarteak sexu-indarkeriaren biktimen diren 100 emakumeri baino gehiagori laguntzen die. Emakume horietako batzuek beren esperientzia zirrarragarria azaldu zuten.

Bestaldererportajeen ALBOANeko kide María Álvarezek kontatzen du zer-nolako egoeran helden diren emakumeak harrera-etxera eta nola laguntzen zaien. María Álvarez elkarte horretako nazioarteko lankidetzako teknikaria da eta espezialista Laku Handiak eskualdean.

Mariak beste gai batzuk ere aipatu ditu, hala nola krimen horiek egiteko dagoen erabateko inpunitatea justizia-sistema partzial eta ez eraginkor batean, talde armatuak finantzatzek

dituen mineralen legez kontrako merkataritza, Europako Batasunak gatazka armatua dagoen herrialdeetako mineralen salerosketa behar bezala arautzeko beharra, eta guturiko bakoitzak daukan eginkizuna gure gauile elektronikoei giza eskubideen urraketaekin duen lotura, hain zuzen ere, Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdean emakumeek sistematikoki jasaten duten sexu-indarkeriarekin duen lotura apurutzeko.

Mariak esaten duen bezala, ez gara jabetzen han gertatzen denaz; ez dakitenez, ez dakitelako, eta dakigunoi, burmuinera bai, baina bihotza iristen ez zaigulako. ■

DATUA

► La Sextako Salvados saioa ikusteko:



NOLA LAGUNDU

Kongoko ekialdeko gatazkaren eraginez desplazatu-tako pertsonen eta indarkeriaren biktime diren emakumeei laguntzeko, bide hauek erabil ditzakezu:

- ▶ 94 415 11 35 telefonora del-tu
- ▶ Dirua eman on-line kanpainaren webgunetik: www.gatazkarikgabekoteknologia.org edo ALBOANen webgunetik: www.alboan.org/eu

DIRUZ LAGUNDU

- ▶ ALBOANen kontuan dirua sartu, diru-sarreraren kontzeptuan «Kongo» hitza jarrita.
- ▶ BBVA: ES52 0182 1290 35 0010853001
- ▶ Kutxabank: ES06 2095 0000 70 9101227989

Ekarpen bakoitza oso baliotsua da Kongoko ekialdean desplazatuta gertatu diren pertsonentzat. Diru horrekin, gauza hauek egin daitezke, besteak beste:

- ▶ 10€ baino gutxiagorekin **eskolako kit** bat eros daiteke: oihalezko motxila (emakume desplazatuek egindakoa), koardernoak, boligrafoak, arkatza, borragoma...
- ▶ 30€ baino gutxiagorekin oinarizko **elikagaien sorta bat** eros daiteke: olio, arrosa, azukrea, esnea. Horrek bermatzen du familia batek behar duen kaloria-kopurua.
- ▶ 60€ baino gutxiagorekin sexu-indarkeriaren biktime den emakume baten **tratamendu psikologikoa** ordain daiteke.

SINATU

- ▶ Sinatu legez kanpoko meataritza amal dadin: www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/firma

BIRZIKLATU

- ▶ Birziklatu zure mugikorra: **Móviles por el Congo**: <http://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/mugikorrak-kongoren-alde/>



GKEak indarkeriatik ihes egin behar izan duten emakume lekualdatuak babesten ditu.

Kongoko emakume desplazatu eta errefuxiatuei laguntzea eta haien eskubideak defendatzea

ALBOAN GKEAK ERREFUXIATUENTZAKO JESUITEN ZERBITZUARI ETA SYNERGIES DE FEMMES POUR LES VICTIMES DES VIOLENCES SEXUELLES ELKARTEARI LAGUNTZEN DIE

Kongoko Errepublika Demokratiko-ko ekialdea krisi humanitario, sozial, politikoa eta ekonomiko batean dago murgilduta, eta urte urte krisia gero eta larriagoa da. Gatazkan tokiko eta eskualdeko talde armatu eta talde militar askok esku hartzen dute, eta denak natura-baliabideak eta mineralak kontrolpean edukitzeko borrokatzen dira.

Segurtasunik eza eta desegonkortasunaren testuinguru horretan, Kongoko ekialdeko Ipar Kivu probintziako herriarren aukera bakarra indarkeriatik ihes egitea da.

Kalkulaten da 2013ko irailean 2 milioi pertsonak baino gehiagok beren etxea utzi zutela. Haietako asko bat-batean sortutako asentamenduetan bizi dira, nola edo hala, ino-

lako laguntza humanitariorik gabe, Nazio Batuen aintzatespen eta laguntza ofiziala ez dutelako.

Leku horietan, jesuiten ALBOAN GKEak Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuarekin lan egiten du, desplazatuei zerbitzuak emanez: elikagaiak eta larrialdietako materialak, esaterako, mantak eta lonak etxolak egiteko; nekazaritzako proiektuak

elikagaiak ekointzeko; bigarren hezkuntzako eskoletarako ekipamendua ikasle desplazatuentzat; gurasoentzako sentsibilizazio-jarduerak umek eskolara bidal ditzaten, eta, azkenik, irakasleentzako prestakuntza.

ALBOANek Kongoko ekialdeko emakumei laguntzen die

Bereziki nabarmendu behar da indarkeriaren eta desplazamenduen ondorioz trauma jasan duten emakumeentzako laguntza. Emakumeak izaten dira kaltetuenak beti, eta Kongo pobreziatik eta nahasmendutik atera nahi duen edozein proiektuk emakumeak eta haien beharrak erdigunean jarri behar ditu.

Horretarako, ALBOANek laguntza ematen die Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuari eta Synergies de Femmes elkarteari, emakumei honako hauek eskainiz: laguntza psikosoziala, alfabetatze eta lanprestakuntzako ikastaroak, haien eskubideei buruzko prestakuntza, eta, aldi baterako haien bizilekua izango diren harrera-etxeak, non laguntza psikologikoa eta juridikoa eskaintzen zaien. ■

Ikastolek ere bat egiten dute «Gatazkarik gabeko teknologia» kanpainarekin

GIZARTE ZIENTZIAN IRAKASGAIAREN BARRUAN LANDUTA, HERRITARRAK INPLIKATZEA DU HELBURU

Ikastolen Elkarteak eta ALBOAN elkarteak sinatutako hitzarmenari esker, DBHko 3. mailako ikasleek «Gatazkarik gabeko teknologia» kanpaina landu ahal izango dute.

Horretarako, Gizarte Zientzia ikasgaiari sartu dute kanpaina, ingelesez eta euskaraz, eta ikasleak herriarren parte-hartzea lortzera animatzen ditu, hainbat bide erabiliz: sinadura-bilketa mineralen salerosketa arautzen duen Europako lege bat eskatzeko, diru-bilketa laguntza humanitariorako, eta, telefono mugikorren bilketa, gero telefonoak birziklatzeko. ■

DATUA

- ▶ Ikastetxe guztiek parte har dezakete kanpainan. Informazio gehiago: <http://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/ikastetxeen-txokoa/>

